

Gure gazte eta helduen artean euskaraz idazteko zaletasuna piztu asmoz, Euskal Birusak eta Udaleko Euskara Sailak 'Juanita Ibaibarriaga' Literatur Lehiaketaren XV.

Edizioa aurkezten dute. Lehiaketa honetan gaztetxo ermuar guztiek parte hartu ahal izango dute egongo diren bi modalitateetan.

LEHEN MODALITATEA

- Adin tartea: LH 3,4,5,6 eta DBH osoa.
 - Saria: 35 euro.
- Zenbateko hori eskola-material, kirol-material zein liburu edo jostailuetan jasoko dute aurrek. Bonoak urte berean kanjeatu behar dira. Dendak: Maribel eta Xiripot liburudendak eta Muga eta Aketegi kirolendak.
- Gaia librea. Ez du guxieneko luzera.

XV.

Juanita Ibaibarriaga Literatur Saria

2. MODALITATEA

- Adin tartea: 16 urtetik gora.
- Saria: 325 euro.
- Oinarriak: Idazlanak makinaz. Gutxieneko luzera 3 orrialde.
- Bidali Udaleko Euskara Sailera urriaren 22a baino lehen. Idazlana kartazal handi batean sartu, bertan egilearen izena agertu gabe. Barruan, beste kartazal txikiago batean agertu behar da egilearen izena, adina, helbidea eta telefona.

Antolatzailea

Euskal
Birusa
Elkartea



Babesleak



Ermuko
Udaleko
Euskara Saila

Azaroaren 8an, San Martin Azokan, eguerdiko 13:00etan egingo da Sari Banaketa Orbe Kardinalaren plazan.

Juanita Ibaibarriaga Ermuan jaio zen 1934. urtean, Iturriaganeko etxean. Berari eta bere senideei Pelaionekuak esaten zieten.

Ekzondu eta lau seme-alaba izan zituen (bata txikitan hil zitzaion). Haiexek hazi eta heztera dedikatu zen buru belarri: inguruan baina beti loba aldra itzela, ze 'tia Juanita' berezia zen.

Autodidakta eta irakurle amorratua, bere inguruan gertatzen zenaz jantzita egotea gustatzen zitzaion Pertsona irekia zen, irizpide zabalekoa, dena eta denekin errespetatzen ohitua.

Mendia zen bere aparteko beste zaletasuna. Egunero egiten zuen bere osteratxoa eta handik bueltan aldean beti ekartzen zuen zerbai, bere amari entzunda zion eta "Euskal Herriko mendiak oso aberatsak dira".; berbena-belarrak edo beherakoa kentzeko landareren bat edo tentsioa jaisteko asun txortaren bat... Ondo ezagutzen zituen denak, euren izen eta ezaugarri guztiekin.

Alaia eta berba gutxikoa, beti zeukan minaren puntan erantzun edo kontseilurik egokiena. Atsegina zen berarekin berba egitea, ze hemendik ez bazen, handik agertzen zuen bere bizitzaren jakituria, bere filosofia eta gauzak ikusteko modua. Gauzak datozen moduan lasai hartzekoa, "konponduko don neska!" zen bere esaldietako bat.

Beste aita eta amarekin askorekin batera Ermuko familia elkartean borrokatu zuen eta ikastola aurrera ateratzeko.

Bere seme-alaba etxerako lanak lagunduz, euskaraz irakurtzera eta idaztera zaletu zen eta haiak koxkortu zirenean, lan sozialak egiten hasi zen.

Behargin fin eta nekazina, euskararen aldeko Euskal Birusa taldearen sorrera konpartitu zuen beste pertsona batzuekin, gogor eta lan eginez bertako hizkuntza, ohiturak eta abestien berreskurapenean. Drogeteniturri herri aldizkariko hasierako zenbakietan kolaboratzaile moduan agertzen da.

Juanita 1992an hil zen, 58 urte zituela, adorerik handienaz, gaixotasun mingarri bati aurre egin ostean.

Etxeakoandre arrunt eta apala izan zen, Ermuko beste edozein andrazko modura, estimatua, maitatua bere ingurukoentzat, kultua eta besteentzako beharra egiteko zein bizirik mantendu behar zenari eusteko astia atera zuena.

